

Edurne Begiristain

GASTEIZ— Legea onartu eta hamalau urtera, EAEko Ehiza Legearen artikulua bat aldatu nahi dute EAJk eta PSE-EEK, ehiza laguntzailea definitzeko eta arautzeko. Aldaketaren bitartez, adingabeek ehizan parte ahal izango dute, baina ez dute armarik eramango, ezta ehiza baimenik beharko ere. Aritz Abaroa EAJko legebiltzarkideak (Bermeo, Bizkaia, 1986) uste du «estereotipo» asko dagoela ehizaren inguruan, eta ezinbestekoa dela «pedagogia» egitea.

Zergatik erabaki duzue lege erreforma hau egitea?

Guk ehiza ulertzen dugulako animalia ehizatzen duen ehiztariaren estereotipotik harago doan jarduerara gisa. Ehiztariak beharrezkoak dira animalien populazioaren oreka bati eusteko; gainera, ehiza afizioa sortzen duen kirola da, jarduera ekonomiko sortzen du, eta kohesio sozialerako elementua da. Hori da erreforma honen inguruko testuingurua. Baina datuek erakusten digutena ere kontuan hartu behar dugu: duela hamar urte, animaliek 6.000 istripu inguru eragin zituzten, eta 2023an, berriz, 16.000 inguru. Hortaz, datuak eskuan, animalien populazioaren oreka mantentzeko ezinbesteko jarduerak dela uste dugu. Animaliek nekazaritzari egindako kalteak ere kontuan hartu behar dira, eta azken hamar urteotan ehiza lizentziak 40.000tik 31.000ra murriztu dira, eta uste dugu ezinbestekoa dela belaunaldien arteko errelebo bat bermatzea.

Nola erakarri nahi dituzue belaunaldi berriak ehizara?

Ehiza mundua ezagutarazi eta afizioa sortu behar da. Eta, horretarako, ezinbestekoa da ehiztariaren laguntzailearen inguruan legeak duen hutsunea arautzea, gaur egun linbo batean baitago. Belaunaldi berriek ehizara erakarri eta afizioa sortu nahi dugu, baina modu arautu batean.

Eta zein izango da haren funtzioa?

Laguntzaileak laguntzaile modura bakarrik jardun ahal izango du, hau da, ezin izango du modu aktiboan parte hartu ehiza jardunean. Ezingo du armarik eraman, eta ezingo du tirorik egin; ehizan dabilenari lagundu baino ezingo du egin. Hori modalitate guztietan egin ahalko du, ez bakarrik uxaldietan.

Zer esan nahi du horrek?

Ehiza postuan dagoen ehiztariarekin egon beharko du laguntzaileak, ezin izango da pieza bat ateratzera joan, ez postutik irten ere. Ezingo du tirorik egin, ezta

«Ehiza ez da animaliei tiro egitea soilik: balio batzuk ditu»

ARITZ ABAROA

EAJko legebiltzarkidea

Ehiza federazioek eskatutakoa bete, eta belaunaldi berriak ehizara erakartzeko asmoz aldatuko dute EAEko Ehiza Legea EAJk eta PSE-EEK, Abaroak azaldu duenez.



JAIZKI FONTANEDA / FOKU

armarik eraman ere, hau da, aktiboki ezin izango du ehizan parte hartu. Beste modalitate batean parte hartzen baldin badu, adibidez, uxaldi batean, segurtasun neurriak zorrotz bete beharko ditu. Haren egitekoa laguntzera mugatuko da.

Edozein adinetako adingabeak ehiza laguntzaile izan ahalko dira hala.

Gaur egun, legeak propio arautzen ez badu ere, adingabeak ere egoten dira ehizaldietan, armarik erabili gabe. Eta, hain justu, hutsune horri eman nahi dio erantzuna legearen erreformak. Besteak beste, ehiza federazioen aspaldiko eskaera bat badelako hori linbo juridikotik ateratzea, eta legeak zehaztea zer egin dezakeen eta nola. Belaunaldien arteko erreleboa bermatu nahi dugu, baina modu arautu batean.

Eskopetak, tiroak, animalien heriotza... Ez dirudi adingabeentzako jardun egokiena. Sumarrek eta talde ekologistek ere bide horretatik egin dituzte kritikak.

Berritot diot: ehiztariaren estereotipoetatik harago ulertu behar dugu ehiza. Ehiza ez da animaliei tiro egitea soilik; balio gehiago ditu. Fokua ez da soilik adin txikikoetan jarri behar, edozein adinetako pertsona izan baitaiteke laguntzaile. Laguntzaileek erantzukizunez, segurtasunez eta neurriak errespetatuz jardungo dute, eta ez dira ehizaren parte aktibo izango. Pedagogia egin behar dugu horretan: ehizak balio erantsia ematen dio kirolari, ingurumenari eta segurtasunari.

Zer esan nahi duzu?

Pedagogia egin behar dugu ehiza ikuspuntu zabalago batean ulertzeko, eta ehizaren balioak

ulertzeko. Gaur-gaurkoz, 14 urtetik gora arma batekin ehiza egin daiteke, hori errealitate bat da, eta erregulatu behar dugu.

Aurkezpenean, esan zenuen ehiza gizarte kohesiorako elementu bat dela, batez ere landa ingurunean. Zer zentzutan?

Landa eremuetan belaunaldien arteko kohesiorako elementua da, adin ezberdinetakoen arteko harremanak sustatzen direlako, afizioa sortzen duten taldeak elkartzen direlako, eta jarduera ekonomikoan zuzenean eragiten duten tabernetan, txokoetan eta abarretan jendea elkartzen delako. Balio komun batzuk dituzten adin ezberdinetako pertsonen arteko harremanak sortzeko balio erantsia ematen dio ehizari.

Ingurumena kontserbatzeko ere funtsezkoa dela esan zenuen. Zergatik?

Animalien populazioa orekatzeko, datuek erakusten baitute istripuak eta nekazaritzaren kalteak bikoiztu edo hirukoiztu egin direla azken urteetan. Ehiztariak ingurumena zaintzen dute, euren jarduerak eta afizioa aurrera eramateko daukaten baliabide nagusia delako.

Nola bermatuko da adingabeen segurtasuna ehizaldietan?

Laguntzailea beti joango da ehiztari batekin, eta hark bermatuko dio segurtasuna. Ehizarekin lotutako zuzeneko arauak bete beharrezkoak dira, eta laguntzaileari horiek betearazi beharko dizkio ehiztariak edo ehiztari taldeak. Basozainek eta Ertzaintzak ere betearazi beharko dituzte arauak. Laguntzailearen gaineko erantzukizuna ehiztariak izango du.

Argudiatu duzue ehiztari kopurua gutxitu egin dela azken urteetan: %22 inguru 2011tik hona. Zure ustez, zer arrazoi egon daitezke jaitsiera horren atzean?

Faktore askok dute eragina, baina, besteak beste, ehizaren inguruan dauden estereotipoak eta pedagogoa faltak du eragina. Ehizari buruzko ikuspegi ezkorrak ere eragina dauka.

Ez al da gizartearen ohiturak aldatu egin direla eta gero eta jende gutxiagori iruditzen zaiola erakargarri?

Horretatik diot garrantzitsua dela ehizaren inguruko balio positibo guztien aldeko pedagogia egitea. Ehiza beharrezkoa dela uste dugun heinean, egoerari buelta emateko ahalegina egin behar dugu.

Presazko bidetik tramitatuko duzue lege erreforma. Zergatik ez duzue egin eztabaidarako aukera gehiago ematen duen ohiko bidetik?

Eztabaidatzeko aukera egongo da, Eusko Legebiltzarrean egiten diren izapide guztietan bezala. ●



«Egun, legeak propio arautzen ez badu ere, adingabeak ere egoten dira ehizaldietan, armarik erabili gabe»

«Laguntzailea beti joango da ehiztari batekin, eta hark bermatuko dio segurtasuna. Harena izango da erantzukizuna»